

IKASTOLARA JOATEKO GARRAIOBIDEAK



Denok behar izaten dugu moduren bat etxetik ikastolara joateko. Baina zein dira gehiena erabiltzen ditugun garraiobideak? Nola egiten dugu eguneroko joan-etorria? Mendipe ikastolakoek gaia aztertu eta 5.mailako ikasleei galdetu diete.

Azterketa horren arabera, **bai** ikastolatik hurbil bizi direnek, **bai** urrun bizi direnek, oinez joan nahi lukete. Eguraldi txarra egiten duenean, **ordea**, multzo batekoek zein bestekoek ibilgailu motordunak erabiltzen dituzte (autoa eta autobusa). Ikasle guztiek badute bizikletaren bat.

Urrun bizi direnek, **ostera**, gehiago erabiltzen dute txirrindua. **Den-denek** esaten dute patinetez joatea ere guztatzen zaiela. Autobusez joaten diren ikasle guztiek nahiago luketa ikastolatik gertuago bizi. Oro har, **hala ere**, gertu bizi nahiz urrun bizi, oinez nahiz autobuses joan. Mendipe ikastolako 5. Mailako ikasleek esaten dute goizetan erdi lotan joaten direla ikastolara!

Irakurri ondoren testua, azaldu idatziz ea zu ikastolatik urrun edo hurbil bizi zaren eta zein garraiobide erabiltzen duzun ikastolara joateko.